

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2011ko ekainaren 22an udal honetako **Osoko Bilkureak** erabagi hau agindu dauela:

4.- UDALTZAINGOAREN ORRIAK TOLESTEKO MAKINEA RENTING BIDEZ ALDATZEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Udaltzaingoaren orriak tolesteko makinea renting bidez aldatzeko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bagilaren 31n amaitzen da udaltzaingoaren orriak tolesteko makinearen renting-a. Makina hori barriztatu beharra dago.

Hornidura hau renting bidez bideratuko danez, berrogeta zortzi (48) hilabeterako, WS POSTMATE V marka eta modeloko aparailua hornitzeko, kitapen eta salaketa agirietako udal sistemarako egokia. Lizitazio prezioa: 8.275,86€ gehi BEZ %18ari jagokozan 1.486,65€. Prozedura Negoziatua publizidade barik erabiliko da.

Bigarrena: Kontratu hau bideratzeko prozedura negoziatua publizidade barik erabiliko da lau urterako kontratua dalako, 30/2007 Sektore Publikoetako Kontratuen Legeko 157.f) artikulua xedatutako kasuan gagozalako, eta publizidade barik 162.1 artikuluan xedatutakoa beteaz.

Hirugarrena: Hiru enpresa gonbidatu dira: AREAK SL, SELZUR eta DIGISYSTEMS, eta euren eskaintzak aurkeztu dabez.

Argudioak

Lehenengoa: Aurkeztutako hiru eskaintzak egokitzen dira kontratuaren xedera. Eskaintzen puntuaketa prezioari bakarrik jagokonez, ondorengoa da lortu dabezan puntuaketak:

2011-41 PLEGADORA (UD)		
ENPRESA	PREZIOA (BEZ %18 BARIK)	PUNTUAKETA
AREAK SL	5.831,52	10,00
SELZUR	7.440,00	7,84
DIGISYSTEMS	6.264,00	9,31

Beraz, eskaintza merkeena AREAK SL enpresearena da.

Bigarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dazala.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Udal Osoko Bilkureak:

LEHENENGOA: AREAK, S.L. enpreseari 2011-41 kontratua behin-behinekoz esleitzea:

Kontratua: Udaltzaingoaren orriak tolesteko makinearen hornidura kontratua renting bidez.

Kontratu epea: 48 hilabete.

Prezioa: 5.831,52€ gehi BEZ %18ari jagokona, 1.049,67€.

Ordainketa: hileroko kuota domiziliatua, 121,49€+BEZ %18.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinarazotea, hornidurak egiterakoan baldintza-agirietan jasota dagozan baldintzak bete beharko dazala.

HIRUGARRENA: Esleipendunari gogorarazotea, behin betiko esleipena egin aurretik, Gizarte Segurantzaren eta Ogasunean zorrik ez izatearen ziurtagiriak aurkeztu behar dazala.

LAUGARRENA: Guzti honen barri, Bermeoko Udaleko web-ean argitaratuko da, Kontratugilearen profilean.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate andrearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko uztailaren 5ean.

ONETSIA
ALKATEA